

PRACTICUM Ilrako PROGRAMA PEDAGOGIAKO GRADUA 2022-2023 IKASTURTEA

H.E.F.A. - UPV/EHU



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

2022/2023 IKASTURTEA

Pedagogiako Practicum Ilko tutoreak:

Eider Gamboa (Koord)
Nagore Ozerinjauregi (Koord)

PRACTICUM Ilrako PROGRAMA

PEDAGOGIAKO GRADUA

2022-2023 IKASTURTEA

H.E.F.A. – UPV/EHU

AURKIBIDEA

1.- SARRERA

2.- PROFIL PROFESIONALA, EGINKIZUNAK ETA JARDUERA ESPARRUAK

3.- PRACTICUM Ilan GARATU BEHARREKO GAITASUNAK

4.- IKASKUNTZA-EMAITZAK

5.-. PRAKTIKETAKO ZENTROKO TUTORETZA (ikus gida orokorra web orrian)

6.- FAKULTATEKO TUTORETZA (ikus gida orokorra web orrian)

7.- IKASLEAK (ikus gida orokorra web orrian)

8.- METODOLOGIA

8.1. I. FASEA

8.2. II. FASEA

8.3. OROI-TXOSTENA

9.- EBALUAZIOA

9.1. FAKULTATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA

9.2. PRAKTIKETAKO ZENTROKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA

10. KONTAKTU INTERESGARRIAK

11. ERANSKINAK

1.- SARRERA

Practicuma funtsezko elementu bat da Pedagogiako Graduiko ikasketa-planaren barruan. Izan ere, Practicumak aukera ematen du Unibertsitateko ikasketak lanbide-jardunera hurbiltzeko, testuinguruan kokatutako esperientzia praktikoa eskuratzeko, hezkuntza- edo gizarte-errealitatera gerturatzeko eta errealitate horrekin integratzeko eta gerora ikaslearen lanbidea izango denari behatu, hasiera eman eta egiaztatzeko.

Practicum II 4. mailako lehenengo lauhilekoan egiten da, irailaren 12tik abenduaren 23ra; guztira 24 ECTS kreditu (600 ordu) dira, eta titulazioaren VII. moduluan sartzen da. Practicumak bi fase ditu.

I. FASEA: 2 kreditu balio ditu (34 ordu, aurrez aurrekoak, eta 16 ordu, bestelakoak) eta fakultatean egingo da oso-osorik, 2022eko irailaren 12tik 23ra bitartean.

II. FASEA: 24 kreditu balio ditu (370 ordu, aurrez aurrekoak, eta 180 ordu, bestelakoak), eta praktiketako zentroan egingo da, batik bat. Zentroan egingo den praktika-lana osatzeko, segimendu-prozesu bat eta analisi-lan bat egingo dira Fakultatean, 2022ko irailaren 26tik abenduaren 22ra bitarteko praktiketako denboraldi osoan zehar.

2.- PROFIL PROFESIONALA, EGINKIZUNAK ETA JARDUERA ESPARRUAK.

Pedagogiako garduduna esku-hartze pedagogikoa, prestakuntza, ebaluazioa eta proiektuen eta baliabideen kudeaketa gauzatzeko prestatuta dagoen profesionala da, eta aditua, hezkuntza gaitan. Hauxe izango da gradudunaren jardueraren xedea: Giza Eskubideen errespetuan oinarritutako hezkuntza inklusiboa, eleanitza, komunitarioa eta pertsonen bizitza osoan zeharreko gizarte-ongizateari begirakoa gauzatzea, erakundeen, gizartearen, kulturaren eta lanaren arloetan.

Horretarako, hezkuntzaren arloko arazoak konpontzeko gizarte-trebetasunak garatu beharko ditu, gizarte-ingurunea errespetatu beharko du, pertsonen arteko harremanen arloan aditua izan beharko du, erabakiak hartzeko gaitasuna eta jarrera arduratsua izan beharko ditu, eta gizarte-zientzien eta giza zientzien arloek berezko dituzten gaitasunak beharko ditu.

Bere eginkizunen artean, hauek nabarmentzen ditugu:

- Hezkuntzaren alorreko diagnostikoa egitea eta esku hartzea, askotariko testuinguru sozial eta kulturaletan.
- Antzemandako premiei erantzuteko jarduera pedagogikoak antolatzea.
- Hezkuntzako zerbitzuei, proiektuei eta erakundeei buruz aholkatzea.
- Hezkuntza programak diseinatzea, abian jartzea eta ebaluatzea.
- Hezkuntza eta/edo lanbide orientazioa prestakuntza- eta kultura-baliabideetatik eta/edo baliabide profesionaletatik abiatuta.

- Prestakuntza- eta hezkuntza-egoerei erantzuteko eta segimendua egiteko jakintza-
alor askotako taldeetan parte-hartzea.
- Zentro eta entitate publiko eta/edo pribatuak antolatzea eta kudeatzea.
- Prestakuntzarako material sormenezkoa ekoiztea euskarri desberdinetan.
- Prestakuntza prozesuak/programak diseinatzea, abian jartzea eta ebaluatzea.
- Prestatzaileei eta beste agente hezitzaile batzuei prestakuntza ematea.

Esku-hartze pedagogikoaren xede izan daitezkeen testuinguru guztiak dira pedagogoaren jardura-esparru profesionalak; esate baterako, hezkuntza arautua, hezkuntza-administrazioa, teknologia berrietako hezkuntza, enplegua eta gizarte-gaiak, hezkuntza berrikuntzako prozesuak eta kalitatearen kudeaketa, antolakuntza eta enpresa, eta minusbaliotasunen, kulturaren, hizkuntzaren... alorreko esku-hartze zerbitzuak.

3.- PRACTICUM Ilan GARATU BEHARREKO GAITASUNAK

1. Praktiketako testuinguru zehatzean murgiltzea, eta erreferentziazko profil profesionalaren gaitasunak barneratzea jarrera kritiko eta hausnartzaile batetik.
2. Praktika profesionalean erabiltzeko estrategia eta prozedura desberdinak (teknikak, protokoloak, dinamikak, lan-prozesuak) eskuratzea diziplina arteko ikuspegi batetik.
3. Ekintza praktikoaren azterketatik abiatuta jakintza garatzea, eta jakintza hori tituluko moduluetan eskuratutako ezagupenekin lotzea.
4. Hezkuntza sustapenarekiko jarrera baikorra izatea hezkuntzako esku-hartzea eta garapen profesionala hobetzen laguntzeko.
5. Praktiketako ibilbidea zehaztasun zientifikoarekin prestatzea eta azaltzea dagozkion dokumentuen eta txostenen bidez (egunkaria, oroi-txostena, mintegietako aurkezpenak).
6. Hezkuntza-planak eta proiektuak diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea pedagogiako profesionalen esku-hartze esparru desberdinetan, eta, horretarako, behar diren tresnak, dinamikak eta bitartekoak erabiltzea.
7. Talde profesionaletan sartzeko, talde-lana egiteko gai izatea, eta antolaketa- eta kudeaketarako eta dinamizazioarako gaitasunak erakustea.

4.- IKASKUNTZA-EMAITZAK

- Dokumentuak eta txostenak zehaztasun zientifiko handiz egitea, eta ikaskuntzako ibilbidea ongi egituratuta azaltzea, barneratutako ezagupenei zein garatutako prozedurei eta jarrerei dagokienez.
- Oroitxostena Practicum prozesuaren emaitza gisa egitea.
- Kanpoko praktiken garapen prozesua modu sistematikoan azaltzea mintegietan.
- Practicumeko segimenduko tutoretza-multzoaren esparruan elkarlanean parte hartzea.
- Gogoeta kritikoa egitea hezkuntza-teoria eta -jardunbidea abiapuntu hartuta.
- Pedagogiako profesionalen jardun-esparruetako batekin lotutako hezkuntza-proiektu berritzaile bat diseinatzea.

5.- PRAKTIKETAKO ZENTROKO TUTORETZA ([web orrian](#))

6.- FAKULTATEKO TUTORETZA ([web orrian](#))

7.- IKASLEAK ([web orrian](#))

8.- METODOLOGIA

Practicumak bi FASE ditu. Lehenengoa, fakultatean egingo da, nagusiki, eta, bigarrena, praktiketako zentroan, gehienbat. Bi fase horiek osatzeko, segimendu- eta azterketa-prozesu bat gauzatuko da Fakultateko mintegietan.

Bi faseetako aurrez aurreko jarduera guztietara joan beharra dago, nahitaez.

8.1. I FASEA: Prestakuntza edukiei eta eduki horiek jardun profesionalarekin duten loturari buruzko gogoeta.

Helburua da ikaslea laugarren mailako Practicumean kokatzea, prestakuntza-aldi horretako prestakuntza-jardueretan eta -zereginetan izan dezakeen teilakapena bideratzea, eta praktiketako prozesua kokatzeko eta aztertzeko ikaskuntza-tresna egokiak zehazten laguntzea.

Titulazioko laugarren mailako Practicum prozesuak oinarri izan behar dituen alderdi teorikoak, testuinguruarenak, instrumentalak eta bizipenak zehaztea du xede. Metodologia aktiboen bidez ekingo zaie aurretiko esperientzia berrikusteari, praktikak egingo diren erakundearen esparruetan aldeztu aurretik kokatzeari, eta horretarako behar diren funtsezko alderdi teoriko-praktikoei.

Prozesu metodologikoa bost gune hauen inguruan egituratuta dago:

1.- Practicum II aurkeztea eta kokatzea

Practicumaren ildo nagusiak aurkeztea eta argitzea, egitura, egin beharreko jarduerak, ikasleek hartu beharreko konpromisoak eta izan beharreko jarrera azpimarratuta.

Practicumaren inguruan indarrean dagoen araudia eta ikasleek bete beharreko araudi horren eranskinak aurkeztea.

2.- Igurikimenak aztertzea eta doitzea

Ikasleek aldeaz aurretik formulatu dituzten igurikimenen aurkezpena eta azterketa egitea, taldean, eta, laugarren mailako Practicumetik espero dutena eta espero dezaketena berrikustea eta hausnartzea, banaka.

3.- Gogoeta partekatua egitea garatutako gaitasun akademikoen gainean

Ikasleek berriro ekitea aldeaz aurreko eduki teoriko-praktikoen gainean egindako lanari, irakurketa lasaia egiteko distantzia pertsonaletik eta aurreko ikasturteetan bereganatutako ikaskuntzetatik abiatuta.

4.- Praktiketako zentrorako gaitasun eta trebetasun profesionalak

Ikasleek parte hartzea hezkuntzako esku-hartze eta rol profesionalaren garapena bultzatzera bideratutako gaitasun profesionalei buruzko lan-prozesu batean.

5.- Practicum IIra egokitutako metodologia-tresnak berreraikitzea

Ikasleek zenbait tailerretan parte hartzea, eta, tailer horietan, aribidean dauden programak aztertzeko eta/edo ebaluatzeko teknikak eta diseinu-proposamenen plangintza lantzea, besteak beste.

8.2. II. FASEA: Zentro, zerbitzu eta erakundeetako egonaldia

Fase honek 24 ECTS kreditu ditu, 550 lan-ordu, guztira; horietatik, 370 ordu aurrez aurrekoak dira, eta 180 ordu, bestelakoak.

FASE honetan egin beharreko lanaren helburua da, batetik, ikasleak bere rol profesionala eraikitzea behaketaren, gogoetaren eta praktikaren bidez beste profesional batzuekin elkarlanean, eta, bestetik, profesional bezala trebatzea zuzeneko esku-hartzearen bidez.

Aurrez aurrekoak ez diren orduak jarduera hauek egiteko erabiliko dira:

- Dokumentuak berrikusteko.
- Prozesuan zehar zehaztuko den bibliografia irakurtzeko.
- Segimendu-mintegietatik sortutako lanak egiteko.

- Landa-egunkaria idazteko.
- Praktiketako zentroko joan-etorrietarako.
- Azken oroi-txostena prestatzeko eta egiteko.

Fase honetan, bi prozesu jarriko dira martxan aldi berean:

1.- Praktikak zentroetan, zerbitzuetan eta erakundeetan

Practicum IIren zati hau hasierako harreman eta behaketa fasea gainditu ondoren ikasleak esku-hartze profesionalan integratzeko moduan antolatuta dago, tituluko profilak berezkoak dituen gaitasunak gara ditzaten.

Prestakuntza proiektua

Lehenengo asteetan, ikasleak, instruktorearekin eta tutorearekin batera, bere prestakuntza proiektua prestatuko du (ikus kronograma eta I. eranskina).

2.- Segimendu-mintegiak eta lanketa teoriko-praktikoa Fakultatean.

Mintegiak Practicumean parte hartzen duten ikasle guztien antolakuntza- eta ikaskuntza-esparruak dira, eta, esparru horren baitan, ikasle bakoitzaren prestakuntza proiektuaren jarraipenari ekingo zaio. Mintegietan ikaskuntza sortzen eta sozializatzen da, eta ezaguerak eskualdatzen dira, ikasleen gogoetaren eta aurkezpenen bidez, ikasle bakoitzak egindako lanetik abiatuta; beraz, laguntza-, ekoizpen- eta komunikazio-guneak dira. Horrez gain, informazio-iturri garrantzitsuak dira, Pedagogiako lanari buruzko erreferentziak ematen dituztelako.

Metodologia aktiboak erabiltzen dira, parte-hartzea eta praktikek lanbidearen zentzu deontologikoan duten esanahiarekiko konpromiso profesionala eta soziala sustatuko dituzten ikaskuntzak bultzatzearren.

Intereseko gaietako batzuk dira, jardun profesionalaren egitura instituzionala eta araudi-egitura, harrera eta haren zentzua hezkuntza-harremanaren ezarpenari begira, ekintza profesionalen barneratuta dauden jarrerazko eta bizipenezko prozesuak, esku-hartzearen zentzua eta esanahia, esku hartzeko prozesuen eraikuntza eta abiaraztea, ekintza praktikoaren azterketa, harreman profesionalak eta lan koordinatua hezkuntzan, gizarte- eta lan-esparruko baldintzak eta prestakuntza-beharren proiektioa.

	KRONOGRAMA			
FASEA	EGUNA	JARDUERA	ORDUA	TOKIA
1. FASEA Prestakuntzaren edukiak	Irailak 14 Eider/ Nagore O.	Practicum II aurkeztea eta kokatzea	10:00–11:00	Gradu Aretoa
	Irailak 14 Miren A.	Igurikimenak aztertzea eta doitzea	11:15–13:15	Gradu Aretoa
	Irailak 15 Leire R.	Praktiketako zentrorako gaitasun eta trebetasun profesionalak	8:30–10:30	Gradu Aretoa
	Irailak 15 Dani L.	Practicum IIra egokitutako metodologia-tresnak berreraikitzea	10:30–12:30	Gradu Aretoa
	Irailak 21 Eider/ Nagore O.	Practicum jardunaldiak: praktiketako zentroetako instruktore eta ikasleen esperientziak	10:30–13:00	Gradu Aretoa
	Irailak 19ko astean Denak	Tutorearekin bilera	Ikasle talde eta tutoren artean hitz hartutakoa	Tutorearen Bulegoan

8.3. OROI-TXOSTENA

Praktikei amaiera emateko, ikasleek Practicumeko azken memoria edo oroi-txostena egingo dute. Bertan, zer egoeratan eta testuingurutan aritu diren deskribatuko eta aztertuko dute. Bakarkako lan bat da, jatorrizkoa, zeinetan, prestatzeko erabili diren dokumentuak eta garrantzitsutzat jotzen direnak eranskin gisa sartuko baitira, eta ez, inolaz ere, oroi-txostenaren testuaren barruan.

Practicumeko prozesuan zehar gogoeta bultzatzeko eta azken txostena errazago egin ahal izateko, ikasleak bere esperientziari buruzko oharra idatziko ditu egunkari batean.

Txosten horretan zenbait alderdi zehaztuko dira. Beste batzuen artean, hauek:

- A. Datu pertsonalak.
- B. Aurkibidea eta Sarrera.

LEHENENGO ATALA: Hezkuntza Zentroan buruturiko Practicumaren oroi-txostena.

1. Praktiketako zentroaren identifikazioa eta bere testuinguruaren analisia: (3-5 or.)

- Identifikazio datuak eta esparru soziokulturala: izen ofiziala, kokapen geografikoa eta gizarte- eta kultur- testuinguruaren ezaugarriak hezkuntza zentroarentzat esanguratsuak direnak, erakunde mota, harremanetarako moduak (telefonoa, emaila, faxa web orria, etab.).
- Zentroak burutzen dituen jarduerak eta funtzioak: zer herritar motari zuzenduta dagoen, eskaintzen dituen zerbitzuak, proiektuak, programak.
- Antolakuntza testuingurua:
 - Barne antolakuntza: kudeaketa eta zuzendaritza organoak. Lantaldea(k): profesionalak, eginkizunak, lan metodologia, etab.
 - Kanpo antolakuntza: zein erakunderen menpe dagoen, zein saretan hartzen duen parte, erregimen ekonomikoa, haren jardura erregulatzen duen araudia.

2. Praktika prozesua: (10-12 or.)

- a- Hasierako Prestakuntza Proiektua: Proiektua osatzeko eraman den prozeduraren azalpen laburra, aipatuko direlarik helburuak, eginkizun motak, dedikazioa eta hitzartutako kronograma.
- b- Zentroan burututako lana: sistematikoki azaldu beharko dira landu diren esparruak, jardura programak eta egin diren lanak, erabili diren metodologiak eta bitartekoak.
- c- Hobekuntza edo garapen proposamena, ikasleak zentroari egiten diona.
 - Zentroak dituen, eta pedagogikoki tratatuak izan daitezkeen, beharren identifikazioa.
 - Esku-hartze proiektuaren proposamena, hatzeman den (diren) premia bati (batzuei) erantzun diona (diena). Ondorengo faseak hartuko dira kontuan:
 - Proiektua kokatzea: ze premiei erantzuten dien.
 - Hartzailea izango den populazioa.
 - Bitartekoen aurreikuspena eta programazioa.

- Ezarpen-prozeduraren proposamena.
- Ebaluazio-prozeduraren proposamena.
- Halaber, proposatu den proiektua ezartzeko aukera izan den kasuetan ondorengo puntuak txertatuko dira:
 - Aurrera eraman den ezarpen-prozedura.
 - Egin den ebaluazioaren emaitzak.
 - Ondorioak.

BIGARREN ATALA: Practicum II-an egin den lanaren inguruko analisia eta hausnarketa pertsonala.

3. Lehenengo fasean egindako lanen sintesia eta eskuratutako ikaskuntzen inguruko hausnarketa. (2-3 or.)
4. Fakultateko mintegietan egindako lanari buruzko azterketa eta hausnarketa pertsonala. Mintegietan egin diren ikaskuntza mailako ekarpenak eta garatu diren gaitasunak. (2-3 or.)
5. Praktiketako zentroan egindako lanari buruzko azterketa eta hausnarketa pertsonala. (3-4 or.)
 - Prestakuntza Proiektuaren balorazioa, betetze mailaren inguruko hausnarketa eginez, haren garapena ahalbidetu/zaildu duten arrazoieta sakonduta.
 - Lantaldea Practicumeko prozesuan, praktiketako zentroan.
 - Pedagogoen perfil profesionala: rol profesionala, rol profesionalari ematen zaizkion funtzioak, lanbide barruko eta lanbide arteko harremanen esparrua, lanbideko gizarte- eta lan-baldintzak, auto pertzepzio profesionala (prestakuntza akademiko-zientifikoa, trebetasun eta jarrera pertsonalak).
6. Practicumaren baliospen orokorra norberaren bizipenetan oinarrituta. (1 or.)

ERANSKINAK ETA BIBLIOGRAFIA

Oroi-txostena DIN A4 tamainako orrietan idatzi behar da, Times Roman letra-motan, 12 tamainan eta lerroarte bakuna utzita.

9. EBALUAZIOA

Practicumaren ebaluazioa egitean bi balorazio hauek hartuko dira kontuan: Batetik, fakultatean egindako lanarena, eta, bestetik praktiketako zentroan egindakoarena. Azken nota bi balorazioen batuketaren emaitza izango da, bakoitzari notaren % 50 esleituko zaio (5 puntu bitarte, oroi-txostenari, eta 5 puntu bitarte, instruktorearen txostenari). Nahitaezkoa izango da biak gainditzea Practicuma gainditzeko.

FAKULTATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA

Fakultateko tutoreak elementu hauek hartuko ditu kontuan Practicuma ebaluatzeko edo baloratzeko garaian:

Fakultatean antolatutako jarduera, mintegi eta tutoretza guztietara joatea eta bertan parte hartzea derrigorrezkoa da (eskatuko den gutxieneko nahitaezko bertaratzea % 80 da, bai I. faserako, bai II. faserako). Bai lehenengo fasean bai bigarren faseko jarraipen mintegietako asistentzia eta parte-hartzea ez betetzeak azken kalifikazioan eragina izango du suspentsorako arrazoi izan daitekeelarik, practicum-eko batzordeak kasu bakoitza aztertuko du dagokion erabakia hartzeko. Horrelaxe, praktikaldi prozesuan pedagogo lanbidearen kode deontologikoaren hausturak ez gainditu kalifikazioa ekarriko du. Zentzu honetan, ezinbestekoa izango da tutorearen oniritzia jasotzea, honek ikaslearen lanaren balorazio positiboa baieztatuko duen heinean. Balorazio horretan kontuan hartuko dira: kideekin erlazionatzeko eta adierazteko gaitasun sozialak, eta praktika profesionalerako beharrezkoak diren estrategien eta prozeduren erabilera.

Practicumeko oroi-txostenaren ebaluazio-irizpideak:

- Memoria edo oroi-txostena egiteko irizpideei eta egiturari jarraitzea: Datuak argitasunez eta koherentziaz aurkeztea. Dokumentua unibertsitateari dagokion mailan idatzia egotea.
- Zehaztasuna, zorroztasuna eta argitasuna dokumentazioa azaltzean eta argudiatzean. Lanbideari dagokion hiztegia zuzen erabiltzea.
- Sakontasuna praktikei buruzko analisia eta gogoeta egitean.
- Pedagogiako profesionalaren rola-erakiko egokitasuna eta konpromisoa garatutako lan eremuan. Profil profesionalaren inguruko analisia eta gogoeta karreran zeharreko prestakuntza akademikoaren eta zientifikoaren esparruan.
- Memoria edo oroi-txostena gainditzeko, 10 puntutik hiru lortu beharko dira, gutxienez ere, ataletako bakoitzean.
- Oroi-txostenaren ataletako bakoitzaren balio haztatua hau izango da:
 - 1-2 atalak: % 60 (3 puntu).
 - 3-4. atala: % 20 (1 puntu).
 - 5-6 atalak: % 20 (1 puntu).

PRAKTIKETAKO ZENTROKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA (ikus IV. eranskina)

Practicuma amaitu ondoren, ikaslearen ebaluazio-orria bete beharko du praktiketako zentroko instruktoreak. Orri hori aldez aurretik jasoko du, eta, bete ondoren, Fakultateko tutoreari bidali beharko dio.

Praktiketako zentroko instruktoreak elementu hauek hartuko ditu kontuan ebaluazioa egiteko garaian:

- Praktiketako ordu guztiak egin izana aldez aurretik erabakitako egutegiaren eta ordutegiaren arabera.
- Jardueren betetze maila, ardura, adierazitako gaitasuna, jakin-mina eta jarrera arduratsua eta gogoetatsua izatea.
- Elkarlanean aritzea profesional taldeen esparruan; iniziatiba izatea.
- Ebaluazio-orria betetzea.

AZKEN BALORAZIOAK

Behin praktikaldia amaitu ondoren, ikasleak bere praktikaldiaren ebaluazioa egingo du (ikus V. eranskina). Halaber, ikasleak egindako balorazioa eta zentroko instruktoreak egindakoa ikusi ondoren, tutoreak azken balorazioa eta ziurtagiria izenpetuko du (ikus VI. eranskina).

10.- KONTAKTU INTERESGARRIAK

Practicumeko dekanordea:

Esther Cruz	esther.cruz@ehu.eus	943 01 8238
-------------	--	-------------

Ikastegiko teknikaria:

Miriam Delgado	hefa.practicum@ehu.es	943 015562
----------------	--	------------

11. ERANSKINAK.

I. ERANSKINA

PEDAGOGIAKO GRADUA (PRACTICUM II)

PRESTAKUNTZA PROIEKTUA

2022/2023 IKASTURTE AKADEMIKOA

Ikaslearen izen-abizenak:

Jn./and.

(Fakultateko tutorearen izen-abizenak)

Tutore gisa

Jn./and.

Instruktorearen izen-abizenak:

NAN:

Tel:

e-maila:

.....ren (erakunde laguntzailea) ordezkari gisa

Honako hau da UPV/EHUren eta Erakunde horren arteko Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmenean jasotako informazioa:

1. UPV/EHUK eskaintako irakaskuntzak: Pedagogiako Gradua
2. Prestakuntza-jarduerak egiteko lekua: Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
3. Erakundeko instruktorea:
4. Ikasketa-tutorea:
5. Praktiken Programaren Arduraduna (PPA): Esther Cruz
6. Hezkuntza-helburuak:

IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO OINARRIZKO GAITASUNAK:

1. Hezkuntzako pertsonak, taldeak, testuinguruak eta erakundeak aztertzea eta horien diagnostikoa egitea, hainbat jarduerara-arlo profesionalean esku-hartze pedagogikoa finkatzeko eta garatzeko.
2. Garapen profesionalerako prestakuntza-proposamenak planifikatzea eta antolatzea, berrikuntza-planen eta programen garapenaren araberako premiei erantzuteko.
3. Hezkuntzako prozesuak eta programak diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea testuinguru eta talde anitzetan, gizarteratzea, kalitatea eta berdintasuna oinarri hartuta.
4. Hezkuntzako baliabideak eta erakundeak antolatzea eta kudeatzea, horiek optimizatzeko asmoz. Gainera, pertsonen eta kolektiboen hezkuntza-garapena eta gizarte-garapena sustatzeko materialak sortzea, hainbat euskarritan.
5. Hezkuntza-arloko gaiei buruzko ezagutza kritikoa eskuratzea, interpretatzea, ikertzea eta eraikitzea, gai zientifiko, politiko, sozial eta etikoei buruzko gogoetetan eta erabakietan iritzia eta orientazioa emateko, Giza Eskubideen ikuspegitik.
6. Pertsonen artean harreman eta komunikazio horizontal eta enpatikoa sustatzeko baldintzak sortzea, testuinguru eleanitzetan eta kultura anitzetan gizarteratzea sustatzeko (entzutea, negoziatzea, adostasuna eta desadostasuna, etika...).

7. Publiko espezializatuentzat eta ez-espezializatuentzat irizpide zientifiko eta sistematikoen arabera proposamenak lantzea eta argudiatzea, idatziz nahiz ahoz, erabakiak hartzeko prozesuak errazteko.

8. Ikaskuntza-trebetasunak, trebetasun pertsonalak, gizarte-trebetasunak eta lanbide-trebetasunak garatzea, pedagogoa hainbat lanbide-arlotan txertatzeko, baita autoenpleguan ere.

IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO GAITASUN GENERIKOAK:

- 1.- Esparru ezberdinetako praktika profesionalak ezagutu; hezkuntza proiektuak, esku-hartze planak eta zein nolako saretan garatzen diren ikusi.
- 2.- Ikaskuntza gaitasunak garatu, praktiketako testuinguru ezberdinetan murgiltzeko asmoz.
- 3.- Estrategia eta esku-hartze estrategia espezifikoak identifikatu.
- 4.- Argudioetan oinarritutako erabakiak hartu, esku-hartze esparruetan sortzen diren egoera espezifikoek konponketak bermatzeko.
- 5.- Kultur eta hizkuntz gizarte testuinguru anitzetan, pertsona eta taldeekin egiten diren hezkuntza esku-hartzeak aztertu eta planifikatu.

IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO GAITASUN ESPEZIFIKOAK:

- 1.- Praktiketako testuinguruetan murgildu jarrera kritiko eta hausnartzaile batetik, erreferentziazko profil profesionalaren gaitasunak barneratuz.
- 2.- Praktika profesionalean erabiltzeko (teknikak, protokoloak, dinamikak, lan ibilbideak) estrategia eta prozedura ezberdinak kontutan izan, diziplina arteko begirada batetik abiatuta.
- 3.- Ezagupena garatu, ekintza praktikoen azterketatik abiatuz eta titulazioetako moduloetan landutako ezagupenekin lotura eginez.
- 4.- Hezkuntzaren esku-hartzea eta garapen profesionala hobetzeko Hezkuntza sustapenarekiko jarrera baikorra izan.
- 5.- Praktikan egindako ibilbideak zehaztasun zientifikoarekin prestatu eta azaldu, dokumentazio eta txostenak sortuz (Egunerokoa, Txostenak, Mintegietako aurkezpenak)
- 6.- Hezkuntza proiektuak eta planak diseinatu, indarrean jarri eta ebaluatu Pedagogiako profesionalen esku-hartze esparru ezberdinetan. Horretarako tresna ezberdinak, lan dinamikak eta behar diren baliabideak erabiliko dira.
- 7.- Talde profesionalean murgildu eta taldeko lana egiteko gai izan, antolaketaarako, kudeaketaarako eta dinamizazioarako gaitasunak erakutsiz.

7. Garatu beharreko jarduerak edo zereginak:

Garatu beharreko jarduerak edo zereginen azalpena
1-
2-
(...)

8. Praktiken Programaren iraupena:

2022/09/26tik 2022/12/22ra

9. Praktikaren ordutegia:

Goizez eta/edo Arratsaldez

10. Ordu kopuru osoa: 370 ordu

11. Hala badagokio, finantzaketa-modua:

- a. Ikasleentzako Laguntza Poltsa, Erakundeak ordaindu beharrekoa: _____€
- b. Ordaintzeko modua: Erakundeak zuzenean ordainduko die ikasleei ezarritako kopurua, egoki iruditzen zaion moduan.

12. Ikasleen zerrenda (*ikasle bat baino gehiago direnean; kasu horretan, horietako bakoitzaren tutorea eta instruktorea adierazi beharko dira*):

Ikasleak (NAN, abizenak eta izena)	Ikasketa-tutorea	Instruktorea

Aldeek bi ale izenpetzen dituzte, _____(a)n, 20__ko_____ren_____(e)(a)n

UPV/EHUren IZENEAN

ERAKUNDEAREN IZENEAN

(Sinadura eta zigilua)

IV. ERANSKINA

INSTRUKTOREAREN AMAIERAKO TXOSTENA

I. DATU OROKORRAK

Praktikaren izena	
Instruktoarearen izen-deiturak	
Erakunde laguntzailea	
Ikaslearen izen-deiturak	
Ikaslea matrikulatuta dagoen titulua	
Tutorearen izen-deiturak	

II. GARATUTAKO JARDUERAREN DESKRIBAPENA

Jarduera egin den Erakundearen saila	
Praktika-aldiaren datak	
Ordu-kopurua	
Jardueraren deskribapen laburra	

III. GARATUTAKO JARDUERAK

Garatutako jardueren deskribapena
1.
2.
(...)

IV. INSTRUKTOREAREN BALORAZIOA

BALORATU BEHARREKO PARAMETROAK (1etik 5era bitarteko balorazioa, non 5 bikain den eta 1 eskas)	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Gaitasun teknikoa										
Ikasteko gaitasuna										
Lanak administratzea										
Ahoz eta idatziz komunikatzeko trebetasuna. Ezintasun bategatik hitz egiteko zailtasunak dituzten ikasleen kasuan, trebetasun honetarako autonomia maila adierazi beharko da, baita baliabide tekniko eta/edo giza baliabideren bat behar duten ere.										
Erantzukizun-zentzua										
Egokitzeko erraztasuna										
Sormena eta ekimena										
Inplikazio pertsonala										

Motibazioa										
Kritikak hartzeko modua										
Puntualtasuna										
Harremanak lan-ingurunearekin										
Taldean lan egiteko gaitasuna										
Egoki irizten diren beste alderdi batzuen aipamena										
PRAKTIKAREN BALORAZIO GLOBALA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

(Data eta instruktorearen sinadura)

V. ERANSKINA

IKASLEAREN AMAIERAKO BALORAZIOA

I. DATU OROKORRAK

Praktikaren izena	
Erakunde laguntzailea	
Praktika egin den Erakundearen saila	
Praktiken Programaren Arduradunaren (PPA) izen-deiturak	
Instruktorearen izen-deiturak	
Tutorearen izen-deiturak	

II. IKASLEAREN DATUAK

Ikaslearen izen-deiturak	
Ikaslea matrikulatuta dagoen titulua	
Ikasturte akademikoa	

III. AMAIERAKO TXOSTENA

JARDUEREN DESKRIBAPEN XEHEA ETA HAIEN BALORAZIOA (Balorazioa egitean, kontuan hartuko dira unibertsitate-ikasketei dagokienez eskuratutako ezagutzak eta gaitasunak)				
Zereginen zerrenda:	Oso ona	Ona	Eskasa	Txarra
1.				
2.				
(...)				
Hala dagokionean, praktiketan sortutako arazoen azalpen xehea	Arazoa nola konpondu den			
(Arazoen zerrenda)				
Praktikaren ekarpena ikaskuntzari dagokionez				
Hobetzeko iradokizunak				
Amaitzean, praktikak zuzen edo zeharka eragin dezake lan-kontratu bat egitea enpresa horretan edo horri lotutako beste batean?	Bai		Ez	
PRAKTIKAREN EBALUAZIO GLOBALA	Oso ona	Ona	Eskasa	Txarra

(Data eta ikaslearen sinadura)

VI. ERANSKINA

IKASLEAREN TUTOREAREN AMAIERAKO BALORAZIO TXOSTENA ETA EGIAZTAGIRIA

I. DATU OROKORRAK

Praktikaren izena	
Tutorearen izen-deiturak	
Erakunde laguntzailea	
Instruktorearen izen-deiturak	

II. IKASLEAREN DATUAK

Ikaslearen izen-deiturak	
Ikaslea matrikulatuta dagoen titulua	
Ikasturte akademikoa	

III. PRAKTIKEN PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

Praktika egin den Erakundearen saila	
Praktika-aldiaren datak	
Ordu-kopurua	

V. EGINDAKO JARDUERA EDO EGITEKOEN ZERRENDA

Egindako jarduera edo lanen azalpena	Eskuratutako gaitasunak eta ezagutzak
1.	
2.	
(...)	

Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak Arautzeko UPV/EHUren Arautegiaren 16. artikulua aplikatuta eta instruktoreak eta ikasleak igorritako txostenak ikusita, **positiboki** ebaluatzen dut haren parte-hartzea praktiken programan, eta ziurtagiri hau igortzen du, horien egiaztagiri gisa.

(Data eta tutorearen sinadura)

XI. ERANSKINA.

PRAKTIKA EGINGO DUTEN IKASLEEK IZENPETU BEHARREKO AGIRIA

I. DATU OROKORRAK

Erakunde laguntzailea/antolakuntza-unitatea	
Ikaslearen izen-deiturak	
Ikaslearen NAN zk.	
Ikaslearen titulua	

.....(e)n,(e)koren(e)(a)n

..... jaun/andreak, NAN
zenbakidunak eta UPV/EHuko ikasleak,

ADIERAZI DU

- Kanpoko praktikak egiteko UPV/EHUri eta Datu Orokorren atalean aipatutako Erakunde Laguntzaile/Antolakuntza Unitatearen arteko Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmenaren baldintzak ezagutzen dituela, berari dagozkion arlo guztietan.
- Aipatutako hitzarmenak eta aplikagarria den araudiak ezarritako eskakizunak betetzeko konpromisoa hartzen duela.
- UPV/EHUri eta Erakunde Laguntzaile/Antolakuntza Unitateari baimena ematen diela bere datuak uzteko eta erabiltzeko, hitzarmenaren hamaikagarren klausulan ezarritakoaren arabera.

Eta, dagozkion xedeetarako, goian aipatutako datan eta lekuan sinatzen dut

Sinadura